AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

319

89/2013 DEKRETUA, urtarrilaren 15ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria kargutik kentzea xedatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatzi-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta uztailaren 27ko 16/1983 Legearen 11. artikuluarekin eta urriaren 16ko 200/2012 Dekretuaren 6. artikuluarekin bat etorriz (16/1983 Legea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege Jaurpideei buruzkoa; 200/2012 Dekretua, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituena), Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Maria Encarnación Echazarra Huguet andrea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.